JORRALLA
16
Eguena
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru llez
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.272 zenbakija

Gayak

"LAU ARUAK"

"Egal-zarari darijozan ur-tantuak lez, erotabesoan antzo, olaxen bira-biraka dabiltz urtien lau aruak. Olantxe bata-be igasi oi-dira bixitzearen aruak.

Umaruak, udabariko usuaren egaztadea dirudi; gastaruak, txakolin gorizkea-edo-ta... uda aratsalde baten matasun sagarar; yamokon mosuba; gixon-aruak bariz, udagoyeneko zaparadeak egin-azoten dauan aterpeko sartu-urtena; zartzaruak, goyetako edura ta berau urtuten dauan eguzkija.

Bixitzea, bere betiko bideari jaratuz, urkuldubaz dua gure euzko-mendijetan; lurak landubaz, donokira otoyak jasuaz, lur eta ortze bitartian dantzatubaz, ondoren lurera jatsirik, emetik donokira egaz egiteko.

¡Gustijoen poza!

Ludi onetatik duazanak: bai-dirudi, eurek lagaiko lekubak betetan datozanei bultz dagitsela, euzko-abendaren eskutapen zoragarija egundo be azaldu ezdatentzat."

COLISEO ALBIA'N

Of gorako irakuri dozubena da "Lau urtaruatzaz" banandu ziran egitarabetako euzkerazko zatija.

Egitarabok iru izkuntzetan idatzi ziran, ba: gazteleraz, katalaneraz eta euzkeraz.

Egitarau oretan iragarten diran eresi ta dantzak ikusten antzokiratu ziran gixa-emakume-taldiakin, Albia'ko antzokija Bilbao'n danik aundijena ixan-aren, osuan beteta ikusten zan.

Ereskintzaren eresijak amatu ziranian, lau aruak asi ziran.

Adiguritxu olerkari ospetsubenaren abotsa entzun zanian, antzoki gustija bere adi jari zan.

Antzoki-erezelen ate-aldian, zala, erezelai alde bijetarantz egiteko agindu eutsen.

Eta antzoki-kortiñeak, Adiguritxu olerkarijaren agindura, alde bijetarantz egin ziran.

Eta Adiguritxu'k, antzoki-erezelak alde bijetrantz-eginda ikusi ebazanian, urtiaren lenengo aruari deru eutsan, eta euren besuetan uso zurija erakusten eben lau udabariko gotzon antzokiratu.

¡Udabarija dan alaya! Espanetan iri gozua ta bijotzetan alatasuna dantzan ebezela agertu yakuzan.

Politen politez, jorala'ko lili-burutxubak zirudijen. Eta alayen-alaiz, epail-zozuaren abesti-anotsa.

Jolasian antzokiratu ziran, jolasian antzokitik aldendu.

Eta Adiguritxu olerkarijaren abotsa barijen-bari entzun zan. Udeari deru eutsan, eta udea antzokiratu zan.

Udabarija loratsu-loratsuba da. Udea ostera, igaliz eta abar, aberats-aberatsa.

Udabari-zugatzak, lora zurijak erakutsi euskuzan. Uda-zugatzak, bariz, igali mueta gustijak. ¡A zugatzaren betia!, ¡a zugatzaren ikuskarija!

Eta zugatz arek bere azpira eruan ebazan neska-mutilak be, udearen seme-alaba berezijak zirala arin ikusi zan.

Emakumiak euren arua osasun-arua zala erakusteko, abarketa zurijak garitik bera dingilizka ebezela, ortosik eta txairo agertu ziran, orpuakaz lurari ukutuge biatz erpiñen ganian dantza-dantzaka. Arein oñak, uso zurijaren eguak baxen ariñak ziran. Arein gogua, egun-uratziaz baterako urtxindoren abestija baxen alaya. Arein arua, matasunak bultz-eraginda txadonarantz igitu dan ezkongayarena baxen udakua.

Euren mutil-lagunak, be, uda-zugatzeko igalirik eldubenak ziran neska eder arein kidekuak ziran. ¡Arein arua! ¡Zer ete-dok udarua...!

Euren uda-goguetatik egaiz-egin guran ebilkijuen alatasunak, dantzan eragiten eutsen. ¡Zelan eragin be gero..! Oñak eta soña, lurari ukutuge, axian erabilela begitanduazoten euskuben. Udaruan bixi ziran, ba, uda-zugatzeko igalijakaz alikatuten...

Udea be, baña, amatu-egin zan. Emen ludijon, gustija amaitzen da. ¡A tamala!

Eta udea amatu zanian, Adiguritxu olerkarijaren abotsak, udagoyena antzokiratu eban.

Uda-zugatz igali gorizkaz jantzijak eskutapen-arijari elduta, ke-zulotik gorantz dagijan ke-zurijaren antzian, gorantz iges-egin euskun, eta udagoyenari begira imini.

Udagoyen-zugatzak igalirik eztau erakusten, negubaren mosura lokatuta jausiko yakazan ori orizka batzuk baño.

Adiguritxu olerkari ospetsubaren abotsak udagoyenaren igalijak dikurezan lau andra-gixon zugazperatu dauz. Gastaruak iges-egindako senar-emazte zentzunekuak dirudije. Eguzkijaren beruak kalte-egiten dautse, ta euren burubak eguzkitik gordetako, eguzki-estalki aundijak besuetatik bera dingilizka dabezela jolas-lekuratuten dira.

Orañño, udaruaz gomutetan diralako-edo, dantzeari damotse, ta dantzan dagije. Euren dantzea, baña, dantza leuna da, mendi-ostian geldi geldika estaldubaz duan eguzkijaren antzekua.

¡Agur, udagoyen bare-leuna! ¡Agur, udagoyen-zugatza!

Ori-oridun zugatz au, be, gure ikusmenak ikusi ezin daben arijari elduta, ortzeko laño-arterantz aldendu yaku, eta negu-zugatza aren lekuratu.

¡Oi, neguba dan otza! ¡Ori igeř bat bez! Ori-ordez, ostera, bere adar biloketan, edur-mataza zuri-zurijak ikusten dira.

Adiguritxu olerkari jayuak bere eten bako abestijari dagitso. Negubari dei egin dautsa, ta neguba negu-zugatzaren azpira ekari dau.

Negubaren igalijak, edura, ta edura baxen ule zurijak erakusten dabezan lau atso-agura dira.

Agura buru-zurijak, soñak makurtuta dabezela, espanetan keya darijuela darabilezan lurezko pipa zurijei eusteko aña indar ozta erakusten dabe.

Aguratuta be, baña, euren udabarijaz ames-dagije; euren udaruaz gomutetan dira, ta dantzeari damotse, jolasari...

Euren dantzea, baña, dantza aztuna da, dantza geldua. Bare-bare dabiltz, tatarezka. Lau atso-agura agurgari arein burubak, lau urtaruan azkenengo burubak dira, negu-burubak.

¡Gaxuak! Urte-buruba, gixa-bixitzearen amaya...

Atata zararen erijotzeak, baña, bilobatxubaren jayotzea ekari oi-dau. Negubaren azkenak, udabarija.

Eta lau urtaruen azkenengo zugatza gure ikusmenetatik urun dabilan eritik dingilizka gora ta gora igon zan zugatza aldendu zanian, Adiguritxu olerkari argijaren abotsera, udabarijak zantso-egin eban; udeak oyu, ta uda-goyenak, olez.

Beraz, udabarija, udea ta udagoyena, leku baten batu ebazan, eta bata-bestiaren jarai lero baten imiñi.

Ora, or, irakurle, Sota'tar Imanol'ak idatzi eban lau urtaruen edestija lauki baten imiñita.

Edesti ori geure burubai ezarteko be egokija dala deritxagu. Lauki au, ikaspide aundikua ixan be-ta, ikusijago ta begikuago egiten yaku. Txalo ederik asko jo-eragiten dauan laukija da ixan be. Albia'ko antzokijan be makiña bat txalo jo eutsezan. Antzeztu be gero, alantze egin eben. "Oldargi,,'ko antzezlarijak, txalogari - txalogarijak dira. ¡Gora Oldargi!

"SARDANAS"-DANTZEA

Catalunya'tik etori yakuzan dantzarijak be dantza artezirik asko erakutsi euskubezan.

Cataluñatarren dantzarako artezitasuna yaoken neurijan atzalduteko, ikustaldi bateko adiraltzea baño geitxubago biar da.

Lenengo ikustalditik begiko be begiko ixan yakuzan dantza orek atzalduteko, eurak sortuteko ixan eben edestirañoko gustija jakin biar da.

"Sardana"-dantza artezi orek, gure ezpatadantzearen bixitasunik eztabe, ezta gurien adore ta gixa-sendotasunik be.

Amaya-ezpatadantzea, esaterako, guda-dantza gogorarren antzekua da. Euren janzkijak eta eskubetan erakusten dabezan ezpata zurijak ikusijaz bakarik uartuten da euzko-dantzarijen guda-anotsa.

Gure Euzko-Gastedi'ko dantzarijak egiten daben eran egin-ezkero, bariz, euren ezpataen otsak gudarik gogorenaren irudija laukituta izten eztabenik iñok eleuke esango.

Beraz, euzkotaren ezpatadantzea ta cataluñatarren "sardanas"-dantzea, mueta biteko dantzak dira.

Cataluñatarena, leuna ta eresi samurekua da. Olertizti-antzekua, ameskarija.

Albia'ko antzokijan dantzatu ixan ebezan dantzarijak be, gero, benetako dantzari ikasijak zirala, ondo erakutsi eben.

Bilbao'k eztauz beinguan aztuko. Ondiño bariro be etori biar ixango dira aurki. Euzko-Araudija, Euzko-Ikastetxe Nagusija ta elebitza euzko-ikastola gustijetan ikasten asten garan egunian-edo...

Zorijonak, ba. ¡Gora aberi-txikijen azkatasun-zaliak!

Uribitarte'tar Ibon.

Euzko - araudija

Or daukoe España'ko agintarijak. Euren eskubetan itxi dogu, irugarenez atan be, geure eri onen azkatasun-atal txu ori. ¿Lenago jazo yakona orainguan, be, jazoko yakonentz? Zuzentasunik erbatzik ba'lego lenbailen onirítsi biar leukie. Lau urte ta erdi ba-daruaguz Araudi oren zain. Batobatzuk neketuta dagozala, ezin ukatu.

Ila onetan gauza andirik eztabe egingo Erkal-puru nor ixango dan eta erabagi biar-ixango dabelako. Euzko-Araudi-aldezko itzak entzun gebazan astartez, be, Prieto'k iñuanez Araudi-aldez lan-egiteko prest-dago. Eta jaun orek askotxu egin daike nai-ixan ezkero. Erkaldaren artian lotsa andija daukotsoe jaun ori.

Astarteko itzak, eztedixala ixan itz utsak. Olantxe, berialakuan ikusi al ixango dogu geure artian Euzko-Araudija.

Irrati - Tramankulubak

ONENAK
MERKIENAK
ŔATI-ETXIA
Urrestarazu ta Lagunak
Plaza Elíptica, 3. Ufutizkiña, 10.752.

Euzkerearen edestirako

Uste dogunez arabitarak ez eben menderatu Erioxa'ko Goyeri aldea (1). Gure uste onen ziorik nagusiena auxe dogu: Goyeri alde aretan euzkereak ez ebela izan aldakuntzarik arabitarengandik. Lurralde aretako oraingo euzkel-izenak eta IX, X eta XI gizaldietako agiritetan irakuri leikezanak Erioxa'ko Goyerian euzkerea etzala il adierazoten dauskue.

Tudela aldean ta baranoan bester ik jazo zan. Eriai yagokezan euzkel-izen banaka batzuek kendu ezkero (Murtxante, Urzainki...), euzkel-izenak, -izenak gitxi be gitxi dira. Diranak be zar itxura ta antz andia dabe. Ortik agiri da, Tudela aldean euzkerarik eztala egin arabitarak bertaratu ziranetik.

Erioxa'ko Goyeri aldean, baña, to ki ta erial yagokezan euzkel-izen asko agiri da. Oxa ta Tiron ibayen be ta erdi aldetik dira Galbaruli, Fonzaletxe, Sajazara, Kuzkurita, Zihuri, Otxanduri, Heramelori, Anguziana, Olauri, Zimeña, Ezkera eriak. Tiron ibayan sartzen dira Ea edo Lea eta Latxigo erekak, Zamaka edo Uriarte, bariz, Ebro'n. Oxa ibayaren gogaldetik beste izen oneik agiri dira: Ezkaray, Arbiza, Azarula, Urdanta, Ulizarna, Eskarza, Zaldierna, Zilbarena, Turza (Iturza), Ayabarena, Zorakin, Zabarula, Uyara, Amunartia... Ebro ta Duero ibayen luraldeak igaro ondoren, Arlanzan ibayaren luraldietan izen oneik dagoz: Orobio (gaur, Villorobe), Kuzkurita, Urkiza, Galarde, Zalduendo, Urez (2).

Madoz'ek (3) diñuanez Otxanduri'n (Nuestra Señora de Legarda" izeneko basatxaunoa dago eta beste bat be izan ei-zan "San Miguel de Ilagardia izenagaz (aurekoa bera ete?); Olauri'n, Txurumendi izeneko muñoa; Haro'n, Atamauri ta Zabala toki-izenak; Zirueña'n, Uso mendietan yayoten dan lotsa; Casalarreina'n Apirte, Santurde'n Zaldo, Pazuengos'en Olora baseria, Cellorigo'n Darate'ko atxa. Ezkaray'n Ubaga'ko Andra Mari'ren baseliza, Baya (Ibaya, agian) ta Arazazia mendiak. Beloredo'n Zaraga izeneko baratza, Cerezo'n Idiabre'ko Andra Mari'ren basatxaunoa, Villagalijo'n (Belorado'tik egora), Basba mendia. Pradoluengo'n Ituñoz ituria ba-dala irakuri izan oi-dogu.

Gorantes'ek (4) diñuanez, Brione bartutiko baseri geyenak euzkel-izena dabez: Lara, Laigara, Bareta, Mendigueta, Arisabel, Ori-Turi; eta Haro'n, Turi-Muri, Matuleri eta Nikalanda. Izan oneik oso aldatuta dagozan aren, euzkereagandik sortuak dirala garbi-garbi ikusten da.

Llorente'k ("Noticias Históricas,,'en), 1.110'garengo agiri bateri buruz, izan oneik dakaz: Ubaho'ko Andra Mari (Ezkaray'n)—Ubaga edo esaten ei da orain—, Desparituri ituria, ta Anabitxa, Ignabitxa, Samaray eta Ituriika (Ituriza, agian; b. e. Turza).

"Cartulario de San Millan,,'en (5) agirietan be IX, X ta XI gizaldietako euzkel-izenak ugari iragarten yakuz. 863'garen urteko agiri batean Eguzuza izena (Tiron edo Oxa ibayen goyaldetan edo izango zan), Orobi eria (oraingo Villorobe dirudienez, Urkiza ta Heramel erian ondoan). 869'garen urteko agirian, Larahedera izeneko tokia aitatzen da, Oka ondoan. 929'garenekoan, San Millan ondoan, Alboheta'ko Andra Mari'ren basatxaunoa. 945 'garenekoan, Laraedera (bariz), Gumenzula eta Massoa mendia (aureko Basba mendia edo da), 345'gareneko beste agiri batean, Nassoa mendia (bariz), eta Lamituri ituria eta Heterena eria, gaur Eterna. Beste batean, S. Yohanem de Zavalla eta Berozzal. 947'garenekoan, Orobio bidea. 991 'garenekoan Duranko'ko maztia.

1020'garenekoan, Haggazar. 1022'garenekoan, Sabutxo eta Txobaharan eta gizon-izen oneik: Atxa Bita, Nunno Balza de Geroiana eta Munio de Zizaraga. 1032'garenekoan, Malela maztia. 1038'garenekoan, Rulena (6) ibayaren luraldietan, Lehie maztia, 10 42'garenekoan, Zumeili ta Subero'ko ibarak eta los Hoyos de Arto. 1049'garenekoan Balza ibara.

1050'garenekoan, oraingo Uruñuela eriari Uruniola deituten yako. 1052 'garenekoan, Ziuri'n (agiriak Zufini diño), Bermuduhuri'eria. 1058'garenekoan, Arto, Dorobo ibara ta Alzenna. 1062'garenekoan, Mutiluri, Urnia eta Urunia (Uruñuela?). 1067'garenekoan, Haramelori'n, Gipuzauri (7), Harilukka (Hariluza), Lakuzabala Monnioguran, eta Amarana. 1069'garenekoan, Ama Narara erota. 1068'garenekoan (S. Salvador del Moral'eko arkiboan), Haraluzela.

(Jaraitzeko.) **UNTZETAMENDI.**

Oara.—Ortueta jaunaren "Vasconia y el Imperio de Toledo,,'tik artu dogu dana euzkera-miñak yota dago zan antzeko.

(1) Erioxa Goyeria Arandio edo Demanda mendikatea ta Ebro tartean dago, Belorado, Santo Domingo de la Calzada ta Haro'ko epala-barutiak artzen dauz.

(2) "Becerro de Cerdeña,,'ren 964 ta 1063 urtietako agirietan, oraingo Urez, Urezti idatzita agiri da.

(3) "Diccionario Geográfico-Histórico", Madrid, 1844-1890.

(4) "Diccionario Geográfico-Histórico de la Rioja", Madrid, 1846.

(5) "Cartulario de San Millan de la Cogolla", por el R. P. Luciano Serrano, Madrid, 1930.

(6) "Rubena" izena "Bena" ibaitik artua da. Bena izen au euzkel izena edo da, "beena" "el de abajo", "bajero".

(7) Erioxa'ko euzkel-izenetan "uri,,'k sendi baten bizitokia adierazo gura dau. Atuman—huri, Heramel—uri, Mutil—uri, Gipuza—uri, Napar—uri, Scemen—uri, Base—uri (Blasc—uri, Velase—uri), Nunno Falza—huri (Falza—huri (Falza—Valza—Balza), Vermudu—huri.

ELEBITZA

Euskaldunok ez gera ba, noski ala dirudin aren, abitzeko iñork are esan zai egoteko jaioak. Euskaleria'k berez ibiltzen daki azken aldi onetan besterik ba-dirudi ere. Izan ere euskaldunok, ez jakin zergatik, lotuak bezela agertzen gera, ez diegu gure egizko buruzagieri nai litzaken neurian laguntzen. Politika gaietan geitxo ere sartu ta Aberia'rentzat bizigarlak diran beste gaiak zearo bazterturik bezela dauzkagu. Euskaldunok gure izakera galdu ta besteena geiegiz geureganatzen ari gera. Eta orixe izaki guk azken-azkena galdu bear degunа: izakera. Zertarako nai ditugu azkatasuna ta gañerakoak gure izakera galdu ta besterena artzekotan? Españatarren antzekoak izateko gabiltzan españalarekin. ¿Zertarako aiengandik azkatu aiek bezelakoak izateko?

Tamalgaria da euskaldunori gertatzen zaiguna. Beti Madrid aldera begira egon bear ori iguingaria ez ezik nardagaria ere ba-da. Olaintxe ere ba-dabilkigu auzi polita. Euskerari erderak dituan eskubide berdiñak ezagutzea nai guk eta ori lortuko ba-da, emen Euskaleriaren euskerak erderaz aña indar izango ba-du, Madrid'tik eman bear agindua... Badirudi gu ikusi-ta Madrid gabe ezin bizi giñezkela, Madrid guretzako Jauja dala.

Madrid'a begira egon bear oren erua askotan eta askotan geok, euskaldunok degu. Oraingoan ere alaxe. Euskaltzaleok nagusi gera Euskaleri'n eta elebitzakiko arazoa geok txuritu genezake Madrid'tik esan dezatekenaren zai egon gabe. Ez genezake, ori ez, oso-osorik erabaki, eskolak eta ez daude gure esku-ta. Baño guk genezakena egin ezkero eskoletarakoa ta gañerakoa berez etoriko litzake aritik euna etori oi dan bezelaxe.

Elebitzakiko arazo onetan beintzat gure eru ez da txikia. Abertzale ta euskaltzale gerala esaten degun guziok ala ba-giña erabakia legoke guzia. Euskeraz jakin ez eta ikasten saiatzen ez dan abertzalea abertzale erdia da, euskeraz jakin eta euskeraz itzegiten ez duan euskaltzalea dala diona ez da euskaltzalea, "todos hemos de trabajar por el resurgimiento de nuestra milenaria lengua" oiu egiten alperikakoa da, euskel idazleak euskeraz itzegiten dan erietarako erderaz idazten kaltegaria da. Gipuzkoa 'ko itzaldi aberkoietan erderaz itzegin da mesede baño kalte geiago egiten zaio Aberiari...

Ez genduke guk Madrid'a begira egon barik izango gu nor ba-giña. Askotan eta askotan nai deguna gure eskuetan daukagu geok ez igari aren. Elebitzarekin gertatzen zaiguna beste askotan ere gertatzen zaigu. Elebitza gure esku daukagu ta gure esku daukagunaren ereguka ari gera Madrid'a. An esango dutena: eskuan daukatena artzen ezpaditek zertara zetoztik onera ezer eskatzera? Auldutako eri bat dek ori ta entzungor eginda ere etzigutek buruauste aundirik emango.

Ala ote da, ba, Euskaleria? Auldutako eria ote da gurea? Ez eta mila bider ez. Ez da aulduta dagon eria. Ar jo ta dagon eria bai ordea. Inguratzen duten erien ar gaixtoak jotako eria bai ordea. Sondatu dituken gaitza Euskaleriarena. Il diteken ara gaur Euskaleriaren mamietan gizantzen ari dan ara. ¿Nola sendatu diteke Euskaleriaren gaitza? ¿Nola il diteke Euskaleriaren mamietan gizentzen ari dan ara? Gu euskaldunduta. Gu len giñanera biurtu-ta. Guk gure izakera arkitu-ta.

Gure izatera euskeran dago. Euskaldundu gaitean. Alperikakoa izango da euskera au ta euskera ura aritzea bear dan garaietan gure euskaltzaletasuna agertzen ezpadegu. Gure euskaltzaletasuna beti agertu bear degu: etxean bezela kanpoan eta kanopan bezela etxean; aldekoen artean bezela etsaen artean eta etsaien artean bezela aldekoen artean; beti ta nun-nai.

Gure euskaltzaletasuna agertzeko biderik onena euskeraz itzegiten degu. Euskeraz dakienak ez luke itz bat bakarik ere esan bear erderaz. Beti euskeraz ariko bagiña, onera datozen guziak euskeraz itzegin bearko luteke.

Begira Kataluñari. An, bertakoak eta atzerikoak guziak dakite katalaneraz eta guziak mintzatzen dira katalaneraz. Bearko mintzatu ere ezer egingo ba-dute.

Emen atzeritar asko ba-dago ere, emen beste lurralde guzietan baño erdeldun geiago ba-dago ere, beartu genetzake onera datozen guziak euskeraz ikastera lendabizi geok euskaldunduta. Geok egin bear degu euskeraz gaur egiten degun baño geiago. Tamalgaria ta tamalgaria ez ezik lotsagaria ere ba-da abertzaleak beren artean erderaz egitea ta abertzaleak edozeñekin erderaz egitea. Abertzaleak ta euskaltzaleok zin egin bear genduke.

Euskaleri osoa euskalduntzen danean; onera datozen guziak euskeraz ikasi bearean izaten diranean elebitzakiko guzia egiña izango da. Ikusiko dute Madrid'en gure eria euskaldun dala ta euskaldun izan nai duala; ikusiko luke beste biderik ez leukakela, ta, gaur eskatzen diogun eskoletarako ta Ayuntamentuetarako ta Diputazioetarako elebitza eman bearean arkituko litzake Gobernua.

Abertzaleak eta euskaltzaleak: ikusi dezagun gauza dan bezela ta ez gaitezen oiuka ta deadarka aritu iñork eman bear ez digun gauzaren eske, geok artu bear degun gauzaren eske. Itzegin zagun euskeraz, euskaldundu ditzagun nai ba-dute ta nai ez ba-dute euskotar eta atzeritar guziak eta elebitza gurea izango da. Zurea ta zu bezelakoena erua elebitza laster baño lasterr oso gureganatzen ezpadegu. Eta guk esaten deguna eginda elebitza baño geiago ere ba-genduke.

Ptar A.

Artzaña ta Epala

Eun ardi ta ari baten jabe zan artzain-morosko bat, mendi-egaleko txabola zar baten bakez-bakez bixi zan.

Artzaña, bere artalde edera lakorik an inguruan be ez eguala-ta, poz pozez aurkitzen zan.

Ardi bakotxak, urtian urtian, batek be utsik emon barik, bildots biña ekarten eutsoezan; eta oraz ganera be, esne, gaztae ta artule, eurekandik gauzarik asko artzen eban. Ori zala-ta, artzaña, bere artalde edera begira aro-puztuta bixi zan.

Otsala'ren azkeneko gabian, artzain-moroskua, enparau gabetan lez, sutonduan aparitarako taluak egiten asi zan. Eta, oretan marduala, axe-bijoraz batian txabolako atakan abots-miragarriz norbatek; "artzain, artzain!" didarez esaten eutsola entzun eban.

Artzaña, olako abots-bakanez eginiko didara entzutian ikeratu egin zan. "¿Zer erdu dok ona...?—bildurez iñuan—. Aspaldijon erdu eztanen bat erdu biar ixan yok gaur bertara...

Eta, aterantza egiteko be bape adorerik ezebala, kanpoko deyari abots dardarez erantzun eutson.

—¿Nor edo zer az eu...?

—Ni, axe-putzaren abots-miragarija nok...—Mendijan jirabiraka ebióan abotsak esan eutson.

—Axe-putzaren abotsa azala diñok..? Olakorik egundo etxuat entzun be egin. Eta... ordu onetan zer arano dakak nire etxera...? Ze izpar edo ze bari dakak gero...?

—Ara.. izpar itun bat euri emotera nayatok... Epala ankera, euri ta txingor, begijetatik txinpartak darijala eure artaldeko ardi gustijak ondatu gurarik datorela ontxe esatera nayatok eta. Ontxe lasterr etori be bariz. Eure artaldea on eta eder euki gura ba-dok.. abil arduraz ta marduraz...

Eta izpar itun ori emonikuan, axiaren putza bat-batez ixilduta, mendijak ziarkatuten ebazalarik beste leku batera iraduz juan zan.

Olako itzak entzunda, artzaña, oldozkor jari zan. Epala'ren gomutiak berak bakarik ikera bixija emoten eutson; eta, bere artalde ederagaz zer ixango ete zan oldoztutian, artega be artega jari zan.

Alako baten, bere esturaldijan, mendi-erpiñera igota mendi-basuetako morroskoeri dei-egitia otu yakon.

Eta, mendi-galurtetik deika ta deika ekinda, amar santzo luze egin orduko, abia lakoxe amar mutil-morosko ureratu yakozan. Eta, amar mutil sendo areik, artzañari bere didarren zegatija jakin gurarik abo-batez esan eutsoen.

—Artzain; zer dala-ta deru gozak..? Zetarako biar gozak..?

—Neure artalde edera jaboteko biar zarubedaz mutilak... Axiaren abotsak esan daustanez epala maltzura, euri ta txingor, neure artadeko ardi gustijak galdu gurarik jatok... Ori dala-ta, neure artaldea eder eukiteko zeuen biar nok mutilak; oretarako zeuek biar zarubedaz... Epala igaro arteko moroetza egingo ete zendukie...?

—Gura-aña talo emoten ba-dauskuzu bai—mutilak erantzun eutsoen.

Gerotxuago, epala, axiaren abotsak esan eban lez betozko ilunez agertu zan. Eta ile gustijan. egun bitartietan bein ixaten ziran ateruna txiki-txikijak ixan ezik, euri ta euri, ta txingor eta txingor, eten bako ekatxa jausi zan. Ori zala-ta, moroyak, euren ardurapeko artaldea jabotiaren zeregiñez beterik ibili ziran; bitarteko ateruna txikijetan ardijak basora atara, ta bariro miñitu bat baño lenago artaldea arapaladan txabolaratu biar ixaten ebelako.

Olan da be baña, moroyak zur eta bizkor ibili ziralako, epala'ren maltzurkerijak gora-bera artaldeko ardi gustijak len baxen sendo ta eder geratu ziran.

Epala igarorikuan, amar mutilak artzañak aurerantzian euren biaarian be ezebala ixango-ta, gure aitalo janda gero euren lekuetara juan ziran.

Mutilak atzia emon orduko, baña artzaña, bere artalde ederari begira anadi jarita, bariro be aro-puztu egin zan. Eta "¡Onek dozak ardijen ederak esanda, epala'ri atzetik iri ta bare egiten asi zan; destañez esaten eutsoen rik.

Marti kakatsu
april ederian sartu nayatzu.
Ik egiñafen eurija ta txingora pranko
nire ardirik makalenak egiten yu

(salta)

Olako iri-destañiaz epala asarratu egin zan; eta artzañaren arokerija gogor zijortuteko ustez, jorala'ri, de-eginda esan eutson.

April biribila
ekazak egun bi ta erdi,
ori artzain aruori kentzeko
eun ardi ta begi...

Ori entzunik, jorala'k, bere lagun epala'ri eskaturiko egun bi ta erdijak berialako baten emon eutsozan. Eta epala maltzurak orduan, joralak eskaratu eutsozan egunetan, eurija, txingora ta edura erime jauntijaz artzain aitaren artaldea betiko gauzeztuta itxi eban; ebazan ardi gustijak, gotik-berako ekatxak bata bestiaren atzian egin eutsozalako.

Eta artaldeko adar andidun ari senduak bariz, itunik aurkitzen zan bere ugazabari, esturaldijan erekatik saltegitera joyala adar bategaz arpegian jota eskumako begija atara eutson.

Orenbestegaz, artzaña, itunago jarri zan. Eta ez ardi ta ez begi, tamal ta malez negarez asita, epala'ri bariro "aupadia" jauntiteko adorerik arian be ez ezebala geratu zan.

Epala'k, ostera, artzaña negarez ikustian bare ta bare egin eban; artzaña baño bera ondiño askozaz geyago zala-ta...

Mañariko

Deunen bixitzea

Anastasi deuna, Alesanduri'ko Arkabasua

(ORALA-2'GN.)

Doibatza Amearen aldezle ta zaintari sendoenen artian, eztau azkenengo malea meresi Atanasi deunak. Gure aberatsakandik jayo zan, kistar aldaretan munduko uririk ederenetarikoa zan Alesanduri'n. Bere ikastaldijak amatu-ondoren basamorturuntz joan zan, bertan, ba, Kisto'ren egijak asmartu nai-ebezan.

Andoni Lekaipuru deunaren babespian bixi-ixan zan eta soñazki bi mokeñi eutsozan gixon zar ari. Jauparen-ixan baño lenago Nizea'ko bazpatzera juan zan eta bertan esan ebazanaren lotsa gorijan itxi eban Ario dongia. Eta tabaida gustijetan agertu eban bere jakiturija eta Kisto'ganako maitasuna.

Bazpatza a eginda geroxe Alesanduri deuna, Alesanduri'ko Gotzaña zeruratu zan eta uriko kistar gustijak batu ziran il zanaren ordezko bat autu egiteko tzat. ¿Nor ixango zan Atanasi langorik?

Ziñausle gustijak, gixon a zelakoa zan ekijelako, batzartu ziran eta aukegin eben uritik at jauftiko ebela Atanasi deuna. Tiro'ko batzarean gure ikeragarijak esan eroiezan deunari kaltez. Emakume biguf batek ifuantu Atanasi'k kendu eutson bere garbitasuna. Arfiotaren dirubak itsututa egiten emakume arek esan ebazan guztiak ontzat artu ebezanak, be, ba-ziran. Bere baña berialakuan guzur a ezereztu zan.

Atanasi daunaren ikaslia zanak, Tomota'k, bere buruba Atanasi'tzat egiten ebalarik, itaundu eutson emakume galdubari: Esan egixu emakume orri noiz zeure etxian egon naz? Zeure gaitasuna noiz zapaldu neban?" Negar eta zotin ikeragarijak emakume arek bayetz iñuan ezkero, epaikarijak esan igari eben ango iruzura. Atanasi deunaren deuntasuna len baño garbi ta argijago geratu zan.

Esan, be, eztaikez iñok Atanasi egin eutsezanak. Ziñausle gustijak ikartu ziran bere kaltez, baña alperik. Deunaren bijotza Kisto'gan eguan eta iño retzan gauza a bigunduteko. Lagun kaxar, be, bere kaltez jagi ziran. Kontantin Nausija, bere semiak, be, negar-eragin eutson. Azkenez Julen bakardun gaizto eta Balenden guzurtijak gortau eben.

Atanasi'ren Ziñeskintza deritxonak idatzi eban eta Doibatza osuak ontzat artu eban. Sartitan erikauturik ebilla eta sei urtetan idoi baten barubar bixi-ixan zan. Basamorturuntz, be, egin eban, baña antxe, be, bere etsayak saldotu ziran. Bere atea ixan zanaren lobojan, be, estaldurik egon zan.

Baña bariz urira etorten zanian, ikeragarizko arera egiten eutsen kistarak eta aren adibidiai jaratuz kistarak gaitbi ta goi-maitasunez bixi ziran. Deunak ber-berak idazten daunez sendi bakotxekuak aingerubak legez egozan.

Befogetamar urtetan olantxe aldetu eban Kisto'ren Ezkona, Doibatza ta ziñausle gustijai atzaldu eutsezan gure ikeraskayak. Bere lan eta biar gorenjen sarija artu egijantzat, zartzaren ederean il zan. Alesanduri'ko tokirik apalenean obiratu eban aren gorpuzkeuna. Eta ilobijan bertan, be, eneutsen baketan itxi ziñausle gaiztuak jalako gorotua eutsoen!